



Sentitu

Eragina

ETA ITAKA-ESKOLAPIOEN ERANTZUNA



Sarrera

Itaka-Eskolapioak sareak elkartasun-kanpaina bat egiten du urtero nazioarte mailan, misio eskolapioaren proiektu jakinen bat babestu, lagundu eta harekin kolaboratzeko. Horien adibide ditugu Filipinetarako, Senegalerako eta Kongoko Errepublika Demokratikorako antolatutako gaituenak.

Baina aurrean, bizia dugun egoera larriaz ohartuta, Itaka-Eskolapioek proiektu gehatz bat ez, baizik eta misio eskolapioa orokorrean babesteko proposatzen dute. Haur eta gazte behartsuenengatik, une zail hauetan laguntza behar duen edozein proiektu —edo bat baino gehiago— babesten saiatuko gara.

Pandemia zaurgarritasuna areagotzen ari da, ez soilik haur, gazte eta beste pertsonena, baizik eta erakundeena ere. Hala da ere eskolapio gisa Itaka-Eskolapioetatik burutzen eta laguntza ematen ari garen proiektu gehatzen kasuan.

Horregatik, kanpaina honek **misio eskolapioa orokorrean laguntzea** bilatzen du, munduko bagter guztietako haur behartsuenen alde.

Sareak, ondoren, kanpainaren fruituak premien arabera, erronka gehatzen arabera, banatu beharko ditu.

Eragina

Azken hilabeteetako osasun-larrialdiaren ondorioz, Itaka-Eskolapioak sareak 200 mila euro inguru galdu ditu 2020an. Eta zoritxarrez, kanpoko ekarpen publiko zein pribatuei dagokienez, txarrena iristear dagoela uste dugu.

Afrika

Osasun-sistemaren ahuleziak eta aurretik zeuden egiturazko arazoek beharrezko egiten dute erne egotea, gaixotasuna kontrolik gabe geratzen bada ondorioak izugarriak izan daitezkeelako.

Mendebaldeko Afrika (Ekuatore Ginea, Boli Kosta, Senegal)

Eskola, barnetegi, parrokia eta gizarte-zentro gehienak itxi zituzten, baina pertsona guztiek ez dituzte eskolak eta azterketak online jarraitzeko baliabideak. Kaleko haurrena oso errealitate gogorra da, baldintza hauetan egoera are zaurgarriago batean baitaude.

Erdialdeko Afrika (Kamerun, Burkina Faso, Gabon, Kongoko E.D.)

Osasun-sistemaren ahulezia kezkatzekoa da.

Hezkuntza-sisteman eskuragarri dauden baliabide urriek ezinezko egin dute konfinamenduan hezkuntza online burutzeko eta, ondorioz, urrutiko beste



alternatiba batzuk bilatu behar izan dituzte.

Gainera, Kamerungo iparraldeko gatazka armatuak egoera larriagotzen du.

Mozambique

Kutsatzeak, batez ere, multinazionalak eta inguruko baliabide natural ugariak sortzen dituzten nazioarteko joan-etorrien ondorio izan dira. Eta egoera honi aurre egiteko, herrialdeak osasun-estaldura oso eskasa du.

Elikadura- eta osasun-egoera kezkatzekoa da, familia asko biziraupen-ekonomiatik bizji direlako.

Osasun-krisiaz gain, gatazka armatua larriagotu egin da. Ondorioz, indarkeriatik ihes egiten duten familia asko gure eskualdera etortzen ari dira, eta gure parrokiari artatu eta elikatu behar ditugu.

Amerika

Pandemiak eragindako krisia oso ezberdina izan da herrialde bakoitzean.

Mexiko

Sare sozialetan eta Interneten bidez erabiltzaile eta langileekin harremanetan egoten jarraitu dugu.

Egoera sozioekonomikoak kezkatzen gaitu, familia asko ezkutuko ekonomiaren mende daudelako eta krisi-egoeran egintza eskolapioen laguntzaren beharra dutelako.

Venezuela

Elikaduraren eta osasunaren alorretan esku hartu behar izan dugu, elikagaiak etxeetara eramanez.

Erregai eskuratzeko gero eta zailagoa da. Egoera arintzeko, hainbat prestakuntza-jarduera online sustatzen saiatu gara.

Bolivia

Hezkuntza-komunitatearen arteko harremana mantendu da, baina baliabideak falta direnez ez da erraza hedatzea.

Hiritan hornidura arazoak izan ditugu. Horri aurre egiteko, elikagaiak banatu ditugu parrokiatan.

Gure egoitza ireki dugu gazteak etor daitezten, etxean ez baitute Internet konexiorik.

Baina, funtsean, etorkizun hurbilenari buruzko ziurgabetasuna areagotu da.

Brasil

Lar Etxea soilik egon da irekita hartzen dituen haurrentzako etxe gisa funtzionatzen jarraitzeko.

Gosea gure inguruko familia askotan indarrez agertzen ari da.

Asia

Gobernuek agindutako laguntzak ez dira iristen eta biztanleen egoera gero eta larriagoa da.

India

Indiak konfinamendu zorrotza ezarri zuen birusaren hedatzea gelditzeko mila milioi biztanle baino gehiago dituen herrialde batean.

Ez dago argi noiz hasiko den ikasturte berria.



Sentitu

Indonesia

Eskualdeko pobrezia-egoera dela eta, bereziki kezkatzen gaitu. Barnelegia eta eskolaz kanpoko proiektua itxita daude.

Filipinak

Herrialde honetan jende asko egunean bigi da eta egunero irten behar da bigimodua ateratzera, eta testuinguru honetan, konfinamendu zorrotzetako eta betetzen zailenetako bat ezarri da. Egoera hau izanda, giza eskubideen urraketa oso larriak egon dira. Kiblawanen kasuan, larriagotu egin da 2019ko abenduan gure eskola suntsitu zuen lurrikaratik suspertzen saiatzen ari ziren biztanleen egoera.

Europa

Gure ardua arretarik gabe geratu ziren kolektibo zaurgarrien hezkuntza- eta gizarte-premiei erantzutea izan da.

Spainia

Etxeek funtzionatzen jarraitu zuten osasun-neurri guztiekin. Calasang mugimenduaren jarduerak telematikoki egin dira eta udalekuak egoerara moldatu ditugu. Familia zaurgarrienei jarraipena egin diegu telefonoz eta online eskolak jarraitzeko zailtasunak zituztenei lagundu diegu. Familia behartsuenen “eten digitala” arintzen saiatu gara.

Erantzuna

Itaka-Eskolapioetan, elkarrekiko mendekotasun solidarioa eta

erantzunkidetasun globala gure sarearen ezaugarritzat dauzkagu.

Zer neurri jarri ditu martxan Itaka-Eskolapioak sareak egungo krisiari aurre egiteko?

- **Ahal den neurrian, gure proiektuetako pertsoneri arreta ematen jarraitzea**, jarduerak beren beharrei erantzuteko egokitu, nahiz eta eskolak, gizarte-gentroak eta beste egintza eskolapio batzuk itxita egon. Hori guztia osasun-neurriak arduraz betez eta, gainera, kontuan hartuta testuinguru askotan ezin dela Internet bidez lan egin (familiek eta zentro batzuek ez dute konexiorik).
- **Krisiak areagotutako arazo eta behar berriak identifikatzea eta laguntzen saiatzea**: elikagaiekin eta oinarritzko produktuekin laguntza ematea, osasun- eta higiene-materiala banatzea, adingabeak eta beren familiak prebentzio-neurrien inguruan sentsibilizatzea.
- **Herrialde eta egoitza bakoitzean Itaka-Eskolapioen aurrekontuak berrikustea, egungo egoerara egokitzeko**: zoritxarrez, proiektuak mantentzeko diru-sarreretako batzuk ez dira iritsiko eta horrek gastuak murriztera eta inbertsioak atzeratzera behartzen gaitu, oinarritzko estaldura bermatu ahal izateko.
- **Komunikazioa eta erantzunkidetasun-sentimendua areagotzea** sarearen barruan, testuinguru honetan bereziki, informazioa, kezka, jardunbide onak eta itxaropenak partekatzeke.



Ekintza solidario batzuk:

- Hezkuntza-komunitate batzuetan, Gurasoen Elkarrekin, kirol-klubek eta abarrek dohaintza garrantzitsuak egin dituzte misio eskolapiorako.
- Ordenako erlijioso batzuek minimora murriztu dute beren esleipen pertsonala, hurbilen dituzten premiei erantzuteko.
- Senidetasunen batean konpromiso solidarioa hamarrenetik haratago indartzea proposatu dute, premia bereziko egoera honetan.
- Diru-sarreretan eragin txarrik izan ez duten beste pertsona batzuek aparteko ordainsaria dohaintza berezi bihurtzeko prest daudela adierazi dute.